



HEZKUNTZA LEGEA

IKASTOLEN ELKARTEAREN LAN-PROPOSAMENA

2017ko otsaila





LEGEA BULTZATZEKO ARRAZOIAK

- Azken hezkuntza hitzarmenenetik (1992) denbora asko pasatu da (25 urte). Egoera berrietara egokitzeko beharra.
- 1992ko Hezkuntza Hitzarmenak EAEko sistemako ikastetxe erdiak baino ez zituen arautzen.
- Euskal gizartearen egituraketak (beste arloetan bezala) Hezkuntza Lege bat eskatzen du.
- Estatuko legediari (LOMCE, esate baterako) alternatiba emateko/aurre egiteko bidea eskatzen du.
- Hezkuntza Legea egiteak hezkuntza xedeen eta helburuen eztabaida ekarriko luke.



DOKUMENTUA: BEDERATZI INTERESGUNE ETA LAU BLOKEETAN BANATUTA

LEHENENGO ATALA: ILDO BERDINTZAILEA EDO SOZIALIZATZAILEA

- Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa
- Aukera berdintasuna eta ekitatea
- Euskal Hezkuntza zerbitzu Publikoaren finantzazioa

BIGARREN ATALA: HEZKUNTZA EDUKIAK; EUSKAL CURRICULUMA

- Euskaran ardazturiko hezkuntza eleanitza
- Konpetentzia digitalaren garapena
- Hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen ebaluazioa
- Irakasleen prestakuntza

HIRUGARREN ATALA: ANTOLAKETA, IKASTETXEEN AUTONOMÍA

LAUGARREN ATALA : ESKOLA EMAITZEN HOBEEKUNTZA



1.- EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOA



Abiapuntua

- Egungo ideia nagusia: Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren oinarria eta ardatza Administrazioaren titulartasunpeko ikastetxeek osatzen dute. Gainontzeko guztiak «subsidiarioak» dira.
- Onartzen dira beste ikastetxeak, baina subsidiario gisa, eta finantzazio ezberdina dute (kontzertuak).

Proposamenak

- Hezkuntza Zerbitzu Publikoan parte hartuko dute zerbitzu publiko hau ematen duten ikastetxe guztiek.
- Horretarako titulartasuna ez da irizpide nagusia izango, baizik eta ematen duten zerbitzuen ezaugarriak.
- HZPko ikasle eta ikastetxe guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituzte
- Betebeharrak: Ikastetxe guztientzat berdinak
- Eskubideak: Aurrekoa gauzatzeko behar besteko baliabideak

2.- AUKERA BERDINTASUNA ETA EKITATEA, HEZKUNTZA INKLUSIOA



ikastolenelkartea

Abiapuntua

- Askotariko egoerak egon arren (etorkinak, beharrizan bereziko ikasleak, fisikoak, hezkuntzakoak, ...), etorkinetan bakarrik zentratzen da eztabaida.
- Egiten diren planteamenduetan intentsitatea bakarrik eskolan jartzen da.
- Zenbait ikastetxe publiko eta kontzertatu ghetto bihurtzeko arriskua (ikasleriaren % 30tik gorako proportzioan bildurik).
- Ikastetxe guztietako ikasleek ez dute trataera bera, baliabideen banaketa oso desorekatua da (eskola publikoaren alde)
- Lege erreferentziarik ez dago ikasle hauen trataeran (gehienez, Planak eta Aginduak).

Proposamenak

- Desberdintasunaren eta inklusioaren definizio zabalak egiten dira UNESCOrekin batera
- Departamentu arteko planak egitea ezinbestekoa da (eta ez eskoletan bakarrik)
- Ikasle horientzako egitasmu bereziak, familien partaidetza tarteko.
- Ukitutako ikastetxeek tratamendu konpentsagarria beharko lukete izan.
- Portzentaje eta epe zehatzak planteatzen dira segregazio edo bazterkeria egoerak gaindituz joateko.
- Nazioarteko esperientzia aurrerakoiei bidea egiteko eskatzen da (Katalunia, Europa, Estatu Batuak, ...).



3.- EHZP-REN FINANTZIAZIOA

Abiapuntua

- Egundoko desoreka dago eskola publikoaren eta kontzertatuaren arteko oinarrizko finantziazioan (ikasleko eta urteko 2 eta 1eko proportzioa).
- Eskola kontzertatuan oinarrizko kostuak estaltzeko baliabide nahikorik ez (%75).
- Esperientziak, Programa berriak, gauzatzeko politikarik eza.

Proposamenak

- Progresiboki ikasle guztientzako baliabideen banaketan eta finantziazioan berdintasuna
- EHZPren barruan dauden Ikastetxe guztiei oinarrizko tratamendu berdina ematea
- Ikastetxeetako ikasleriaren ezaugarrien eta Hezkuntza Sistemak bultzatzen dituen helburuen arabeko finantziazio osagarria, banakako hitzarmenen bidez.



4.- EUSKARAN ARDAZTURIKO HEZKUNTZA ELEANITZA



Abiapuntua

- Oinarrizko Legedia “Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzen duena” (A, B eta D eredu linguistikoak).
- Lege honen ideia nagusia: euskalduntzeko hiru eredu (euskara erabiltzeko orduak). Ez ditu helburu zehatzak markatzen.
- Frogatuta dago: ez du bermatzen euskalduntze prozesua eta, are gutxiago, euskararen erabilpena.

Proposamenak

- Eleaniztasunaren ardatza, euskara
- DBH bukatzerakoan, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruaren arabera ebaluatu beharreko helburu argiak: B2 maila hizkuntza ofizialetan, eta B1 maila hirugarren hizkuntzan.
- Egoera soziolinguistikoaren arabera, ikastetxe bakoitzean Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua
- Eztabaida helburuetan ezartzea eta ez bitartekoetan.



5.- KONPETENTZIA DIGITALA

Abiapuntua

- Nahiz eta teknologiak gero eta garrantzi handiago izan, ez dago plan zehatzik.
- Orain arte «dispositiboetan» oinarritutako politika egin da, eta ez edukietan oinarritutakoa.

Proposamenak

- IKTen inguruko Plan Integrala behar da (ikasleen irteera profila, teknologia berrien erabilpena ikasirakas prozesuetan, irakasleen formazioa, ...)
- Oinarrizko ekipamendua finantziazio publikoarekin bermatu beharra dago
- Garrantzitsuena ez dira «dispositiboak», baizik eta «zertarako» erabiltzen diren.



6.- HEZKUNTZA SISTEMAREN ETA IKASTETXEEN EBALUAZIOA

Abiapuntua

- Ebaluazio-kultura oraindik ahula da.
- Ez dago argi zer, nola, noiz eta zertarako ebaluatu (LOMCE adibide)
- Ebaluazio-erakundearen izaera eta jarduera ere sarri askotan zalantzan jartzen dira.

Proposamenak

- Ebaluazioaren kultura indartu beharra dago (ezinbestekoa da)
- Ebaluazioaren helburu garbia: hobekuntza (metodologikoa,)
- Ebaluazio-sistema propio baten aldeko aukera egiten dugu, horren kudeaketa erakunde autonomo baten esku egon behar duelarik.



7.- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Abiapuntua

- Irakasleen prestakuntza, nahiz eta Hezkuntza sistema baten oinarri garrantzitsuenetako bat izan, ez dago jasota, ezta eskubide bezala ere, inongo legetan.
- Azken 25 urte hauetan ez dago inolako aldaketarik prestakuntza ofizialetan.

Proposamenak

- Hezkuntza Sistema bateko zutabeetako bat da prestakuntza.
- Irakasleriaren hasierako prestakuntza ezinbestekoa da (practicumaren garrantzia).
- Prestakuntzak hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoaren garapena ziurtatu behar du.
- Eskolako estamentu guztiek hartu behar dute parte.
- Prestakuntza eguneroko funtzionamendua hobetzera bideratu behar da.



8.- ESKOLAREN AUTONOMIA

Abiapuntua

- Egungo sistemak ez du autonomia bideratzen, emaitzak kontrolatu beharrean eguneroko funtzionamendua kontrolatu nahi du.
- Sare publikoan eredu funtzionariala da garaile.
- Autonomiaren bi zutabeak (langileria eta erabakiak hartzeko gaitasuna) ez dira batere lantzen.

Proposamenak

- Ikastetxeen autonomia eskola komunitatearen partaidetzan, antolaketarako askatasunean eta izaera juridiko ezberdinetan oinarritu behar da
- Autonomia giza baliabideen kudeaketan oinarritu behar da, bestela ezinezkoa da
- Autonomia indartzeko ikastetxe eta administrazioaren arteko itunak behar dira
- Hau dena gauzatzeko ikastetxeetako lidergoa indartu behar da



9.- ESKOLA EMAITZEN HOBEEKUNTZA

Abiapuntua

- EAEko eskola emaitzak ekitatiboak bai, badira, baina ez datoz bat gure egoera sozio-ekonomikoarekin.
- Ebaluazioarekin gertatzen den bezala, hobekuntzaz ere ez dago kulturarik/ipar garbirik. Konformismoan gaude

Proposamenak

- Hobekuntza planak ebaluazioaren ondorio izan behar dira.
- Hobekuntza planaren bi ardatz: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta gelako jarduera
- Irakasleen prestakuntza eta talde-lanerako gaitasuna gako dira hobekuntza prozesuetan.